



Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes presentan la siguiente proposición de ley para su debate urgente en pleno, y por el procedimiento de lectura única, al amparo de los artículos 103 y 163 del Reglamento del Parlamento Vasco.

## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

### JUSTIFICACIÓN

Tras el fin de los trabajos de ponencia sobre la creación de un fondo de compensación a las víctimas del amianto, se presenta la siguiente propuesta legislativa para su envío a las Cortes Generales.

Parece conveniente el trámite del artículo 103 del Reglamento sobre la tramitación urgente, con el fin de su aprobación y remisión a las Cortes Generales con la mayor celeridad posible, dado que es un texto que en la anterior legislatura contó con la unanimidad de esta Cámara.

**TÍTULO DE LA LEY:** Ley de creación de un Fondo de Compensación para las Víctimas del Amianto.

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En el conjunto del Estado español, entre los años 1994 y 2008 el número de fallecimientos vinculados directamente al amianto fue de 3.943.

Durante todo el siglo XX se importaron unas 2.600.000 toneladas de amianto. El pico máximo de consumo se

Behean sinatzen dugun taldeok honako lege-proposamen hau aurkezten dugu osoko bilkuran premiaz eta irakurketa bakarrean eztabaidatzeko, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 103 eta 163 artikuluen babesean.

### EUSKO LEGBILTZARREKO MAHAIARI

#### ZIOA

Amiantoaren biktimentzat konpentsazio funts bat sortzeari buruzko lanak behin amaitu ondoren, honako lege-proposamen hau aurkezten da Gorte Nagusietara bidaltzeko.


Komenigarria da izapideztea premiazko izapidezzearen gaineko Erregelamenduaren 103. artikuluaren arabera, hori onartzeko eta Gorte Nagusietara ahalik eta azkarren bidaltzeko. Izan ere, testu hau aurreko legegintzaldian Legebiltzar honek aho batez onartu zuen.

<b>LEGEAREN</b>	<b>IZENA:</b>
Amiantoaren Biktimentzat Konpentsazio Funts bat Sortzeko Legea.	

#### ZIOEN AZALPENA

Espainiar Estatu osoan, 1994 eta 2008 urteen artean, 3.943 izan zen amiantoari zuzenean lotutako heriotza kopurua.

XX. mende guztian zehar 2.600.000 tona amianto importatu ziren. Kontsumoa bere goien gailurra jo zuen 1970 eta 1980 urteen artean. Hiru



produjo entre los años 1970 y 1980. Unas tres cuartas partes se utilizaron para fabricación de fibrocemento para la construcción, cifra similar a la de otros países.

Se calcula en unas 2.300.000 toneladas el consumo de amianto entre los años 1960 y 1995, lo que supone un 30 % menos de consumo que en Francia.

Se ha probado científicamente que existe una relación directa entre el consumo de amianto y el mesotelioma. En estudios recientes (Chérié-Charline en 2012) se señala que en Francia actualmente se diagnostican unos 1.000 mesoteliomas de promedio al año. Por ello, se estima que, si el consumo ha sido un 30 % inferior, podríamos afirmar que estaríamos en torno a los 700 mesoteliomas de promedio por año.

Esta situación es similar a la existente en otros países de la Unión Europea, y, no obstante, a pesar de ello, España no cuenta aún con un fondo de compensación.

Si se hace una estimación del número anual de casos de patologías por amianto, entre los años 2003 y 2009 podrían haberse producido 7.154 casos a indemnizar en sus diferentes modalidades.

De estos datos se puede deducir que hasta 2023 seguiremos con un número ascendente de casos, lo que pone más en evidencia la necesidad de poner en marcha en nuestro país un fondo de compensación como los existentes en Francia, Holanda o Bélgica. A partir del 2023 se estabilizarán las cifras y se iniciará una rápida tendencia

laurdenak inguru erabili ziren eraikuntzarako fibrozementua egiteko, beste herrialde batzuetakoaren antzerako kopurua.


Kalkulatzen da 2.300.000 tona amianto kontsumitu zirela 1960 eta 1995 urteen artean; Frantzian baino % 30 gutxiagoko kontsumoa ematen du horrek.

Zientifikoki frogatuta dago badela zuzeneko lotura amiantoaren kontsumoaren eta mesoteliomaren artean. Arestiko azterlan batzuetan (Chérié-Charline 2012an) esaten da Frantzian gaur egun urtero batez beste 1.000 mesotelioma diagnostikatzen direla. Horregatik, estimatzen da ezen, baldin eta Spainian kontsumoa % 30 txikiagoa izan bada, esan genezakeela urtean 700 mesotelioma inguru genituzkeela batez beste.

Egoera hori Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan bezalatsukoa da, eta, hala ere, hori hala izanagatik, Spainiak ez du oraindik konpentsazio-funtsik.

Estimazio bat egiten baldin bada amiantoak eragindako patología-kasuen urteroko kopuruaren gainean, 2003 eta 2009 urteen artean kalte-ordaina eman beharreko 7.154 kasu gertatu zitezkeen bere modalitate guztieta.

Datu horietatik atera daiteke 2023ra arte jarraituko dugula gero eta kasu gehiagorekin, eta horrek, beraz, are gehiago nabarmenarazten du gure herrialdean ere konpentsazio-funts bat abian jarri beharra Frantzian, Holandan edo Belgikan badirenak bezalakoa. 2023tik aurrera zifrak egonkortu egingo dira eta beheranzko joera bizkor bat



descendente. Estas son las previsiones.

El amianto actualmente ya no existe como problema preventivo. El problema radica fundamentalmente en las enfermedades derivadas de antiguas exposiciones que afloran y seguirán aflorando aún con más intensidad.

Los daños sufridos están derivando en una gran cantidad de litigios. Ello hace necesaria la creación de un fondo de compensación sin culpa.

La litigiosidad fundamental se refiere o afecta a trabajadores y trabajadoras que hayan podido estar en relación con el amianto. Y además hay que tener en cuenta los contactos fuera del ámbito laboral, dentro del ámbito familiar (por lavado de ropa en casa) o ambiental, que no regula ahora el sistema.

A diferencia de los accidentes de trabajo, en las enfermedades profesionales los daños no son instantáneos, aparecen años más tarde, y en el caso del amianto décadas más tarde, cuando muchas empresas han desaparecido. No obstante, todos los datos anteriormente señalados ponen de manifiesto que afecta a un número de trabajadores y trabajadoras suficientemente significativo como para poder justificar el establecimiento de un fondo de compensación.

Además, el principal problema es que muchas empresas donde se produjo la exposición ya han desaparecido cuando la enfermedad se manifiesta, dado que podemos estar hablando de exposiciones que se produjeron de 20 a 50 años antes. O que los trabajadores y trabajadoras

hasiko da. Horra aurreikuspenak.


Amiantoa egun ez da jadanik existitzen prebentziozko arazo gisa. Arazoaren funtsa nagusiki beste toki batean dago, alegia, aspaldiko esposizioen ondoriozko gaixotasunetan, zeinak azaleratzen diren eta aurrerantzean ere azaleratuko diren are intentsitate handiagoz ere.


Sufritutako kalteak ondoriotzat ekartzen ari dira auzi kopuru handi bat, eta beraz beharrezkoa da errudunik gabeko konpentsazio-funts bat sortzea.

Auzi nagusiak dira, hortaz, amiantoarekin harremanean egon ahal izan diren langileei eragiten dietenak. Eta, gainera, kontuan hartu behar dira lan-esparrutik kanpoko kontaktuak, familia- edo ingurumen-esparrukoak (etxeen arropak garbitzeagatik), sistemak orain arautzen ez dituenak.

Laneko istripuetan ez bezala, gaixotasun profesionalen kalteak ez dira bat-batekoak, handik urte batzuetara agertzen dira, eta amiantoari dagokionez hamarkada batzuen ondoren, empresa asko desagertu eta gero. Hala eta guztiz ere, lehen emandako datu guztiak agertzera ematen dute langile kopuru esanguratsu bati eragiten diola, konpentsazio-funts bat arrazoitu ahal izateko behar bezain esanguratsua, hain zuzen.

Horrela, arazo nagusia da esposizioa gertatu zen empresa asko desagertu egin direla jadanik gaixotasuna agertzen denean, zeren baliteke hemen hizpide darabiltzagun gaixotasunak 20tik 50era urte lehenago gertatu izana, edo langileek lanean aritu izana enpresa batean baino





han podido prestar servicios en diferentes empresas a lo largo de su vida laboral, lo que dificulta la identificación de la exposición concreta que generó la enfermedad. Ello supone una dificultad añadida en la identificación de las empresas responsables del pago de las indemnizaciones que pueden corresponder a los afectados y las afectadas.

Muchas de esas empresas han podido sufrir con el paso del tiempo reconversiones, escisiones, absorciones, cambios de denominación o traslado de actividades, que además pueden dificultar sobremanera la identificación del que puede ser el actual responsable de la que fuera, en su día, empleadora del trabajador, y de la actual sucesora. Ello conlleva por parte de los afectados y las afectadas o sus familiares una labor detectivesca, un enorme y dificultoso esfuerzo para identificar a la empresa responsable, que impide muchas veces reclamar, quedando al afectado sin compensación a pesar del daño sufrido en su salud. La demostración de la exposición es difícil por todo ello, y resulta difícil establecer la causa-efecto para el afectado/a y sus familiares.

El fondo de compensación conseguirá que aquellas familias o trabajadores afectados y trabajadoras afectadas que tienen vedada la vía judicial, por no tener empresa a la que reclamar la indemnización, vean compensado el daño.


Otro problema añadido es la judicialización de los procesos. Las víctimas han de luchar en los juzgados, para reclamar sus derechos, con los

gehiagotan beren lan-bizitzaren joanean, eta horrek zaildu egiten du zehatz identifikatzea gaixotasuna sorrarazi zuen esposizio konkretua. Horrek berekin dakar zaitasun bat gehiago identifikatzeko garaian zer empresa diren kaltetuei egokitut ahal dakizkien kalte-ordinak ordaintzeko ardura dutenak.

Enresa horietako askok baliteke denboraren joanean arrera eraman izana birmoldaketak, zatiketak, absortzioak, izen-aldatzeak edo jarduera-lekual-daketak, zeinek gainera ikaragarri zaildu dezaketen identifikatzen zein izan daitekeen egun arduraduna, bere garaian langilearen enplegu-emaile izandakoarena, eta haren oraingo oinordekoarena. Horrek berekin dakar kaltetuen edo haien senitarteko aldetik detektibe-lan bat, esfortzu ikaragarri eta zail bat enresa arduraduna identifikatzeagatik, zeinak askotan galarazten baitu erreklamatzea, kaltetua konpentsaziorik gabe gelditzen dela nahiz eta kaltea jasan izan bere osasunean. Eraginpean egon izana frogatzea zaila da horregatik guziagatik, eta zail gertatzen da kausa-efektua ezartzea kaltetuarentzat eta haren senitarte-koentzat.

Konpentsazio-funtsak lortuko du, hortaz, bide judiziala debekaturik daukaten familia edo langileek, enpresarik ez dutenez kalte-ordinaria hari erreklamatzeko, kaltea konpentsatua ikustea.

Beste arazo erantsi bat da prozesuen judizializazioa. Bikitmeak borrokan egin behar dute epaitegietan, beren eskubideak erreklamatzeko, Gizarte Segurantzako erakundeekin eta



organismos de la Seguridad Social y con las mutuas. Los trabajadores afectados y trabajadoras afectadas y sus familiares se ven abocados a un proceso judicial que conlleva un coste económico importante por parte de las familias, o por parte de las viudas y viudos, que, percibiendo pensiones mínimas, además han de asumir ese coste económico.

Toda esta situación (la enfermedad sufrida por el afectado o la afectada, o el proceso judicial, entre otros) conlleva también un coste emocional para las familias y los afectados y las afectadas.

## CAPÍTULO I Naturaleza y organización

### Artículo 1. Creación y naturaleza

1. Se crea el Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto.

2. El Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto es un organismo autónomo de carácter administrativo, adscrito al ministerio que tenga asumidas las competencias en materia de seguridad social, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, para el cumplimiento de sus fines.

### Artículo 2. Fines

Corresponde al Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto la reparación íntegra de los perjuicios tanto de toda aquella persona que haya obtenido el reconocimiento de una enfermedad profesional ocasionada

mutuekin epaitegietan. Hainbestenaz, kaltetutako langileak eta haien senitartekoak prozesu judizial batera jo beharrean suertatzen dira zeinak kostu ekonomiko handia eragiten baitie familiei, edo alarguntsei, eta alarguntsa horiek, gutxienezko pentsioak jasotzen dituztelarik, gainera kostu ekonomiko hori hartu beharra daukate bere gain.

Egoera horrek guztiak (kaltetuak sufritutako gaixotasuna, edo prozesu judiziala, besteak beste) berekin dakar kostu emozional bat ere familiertzat eta kaltetuentzat.

### I. KAPITULUA Izaera eta antolaketa

#### 1. artikulua. Sorrera eta izaera


1. Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsa sortzen da.

2. Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsa da izaera administratiboko erakunde autonomo bat, gizarte-segurantzaren eskumenak dituen ministerioari atxikia, nortasun juridiko eta jarduteko gaitasunarekin bere helburuak betetzeko.

#### 2. artikulua. Helburuak

Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren egitekoa da osoki erreparatzea amiantoak eragindako kalteak, bai amiantoak eragindako gaixotasun profesional baten aitorta jaso duten pertsona guztiak bai Espainiako Erresumaren lurraldean amiantoaren eraginpean egon izanaren





por el amianto como de toda persona que haya padecido un perjuicio resultante de una exposición al amianto en el territorio del Reino de España.

#### Artículo 3. Recursos económicos

Para el cumplimiento de sus fines, el Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto dispondrá de los siguientes recursos:

1. Las cotizaciones efectuadas por los empresarios, tanto públicos como privados, que empleen trabajadores por cuenta ajena.
2. Las aportaciones de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.
3. Las cantidades obtenidas por subrogación.
4. Las consignaciones o transferencias que puedan fijarse en los Presupuestos Generales del Estado.
5. Cualesquiera otros previstos en las leyes.

#### Artículo 4. Estructura organizativa

1. La dirección y gobierno del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto corresponde al consejo rector y a la secretaría general.

2. Para la instrucción de los correspondientes expedientes y para la realización de las oportunas actuaciones subrogatorias se constituirán unidades administrativas periféricas integradas en las direcciones provinciales de la Seguridad Social.

ondorioz sortutako kaltea nozitu duten pertsona guztiak.

#### 3. artikulua. Baliabide ekonomikoak


Bere helburuak betetzeko, Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsak baliabide hauek izango ditu:


1. Besteren konturako langileak enplegatzen dituzten enpresaburuek, nola publikoek hala pribatuek, ordaindutako kotizazioak.
2. Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen mutuen ekarpenak.
3. Subrogatzeagatik lortutako zenbatekoak.
4. Estatuko Aurrekontu Orokoretan jar daitezkeen kontsignazioak edo transferentziak.
5. Legeek ezarritako beste edozein.

#### 4. artikulua. Antolaketa-egitura

1. Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren zuzendaritza eta gobernu kontseilu errektoreari eta idazkaritza nagusiari dagokie.

2. Dagozkion expedienteak instritzeko eta beharrezko subrogazio-jarduketak egiteko, administrazio-unitate periferikoak eratuko dira Gizarte Segurantzaren probintzia-zuzendaritzetan sartuta egongo direnak.





## Artículo 5. El consejo rector

1. El consejo rector, órgano superior colegiado de dirección, estará integrado por su presidente o presidenta, cuatro representantes de la Administración pública, cinco representantes de las organizaciones sindicales, cinco representantes de las organizaciones empresariales más representativas con arreglo a la ley, dos representantes de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales, designados de acuerdo con sus estatutos, y un secretario o secretaria.

2. La presidencia del consejo rector corresponderá al secretario o secretaria de Estado con competencias en materia de seguridad social, siendo designados los restantes vocales representantes de la Administración pública libremente por el ministro o la ministra que tenga asumidas las competencias en materia de seguridad social, de entre los/las directores/as y subdirectores/as generales del departamento con competencias relacionadas con los fines del organismo.

3. Como secretario o secretaria del consejo rector actuará, con voz y sin voto, el secretario o la secretaria general del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto.

## Artículo 6. Funciones del consejo rector

1. Son funciones del consejo rector:

a) Elaborar los criterios de actuación

### 5. artikulua. Kontseilu errektorea

1. Kontseilu errektorea, zuzendaritzako organo kolegiatu gorena, kide hauek osaturik egongo da: presidenteak, Administrazio publikoaren lau ordezkariak, erakunde sindikalen bost ordezkariak, empresaburuen erakunde legearen arabera ordezkagarrienen bost ordezkariak, eta laneko istripu eta gaixotasun profesionalen mutuen bi ordezkariak, beren estatutuen arabera izendatuek, eta idazkari batek.


2. Kontseilu errektoreko lehendakaritza gizarte-segurantzaren arloan eskumenak dituen Estatuidazkariak hartuko du, eta Administrazio publikoa ordezkatzen duten gainerako kideak libreki izendatuko ditu gizarte-segurantzaren arloko eskumenak bere gain harturik dauzkan ministroak erakundearen helburuekin lotutako eskumenak dituzten saileko zuzendari eta zuzenda-riorde nagusien artetik.

3. Kontseilu errektoreko idazkaritzan jardungo du, hitzarekin eta botorik gabe, Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren idazkari nagusiak.

### 6. artikulua. Kontseilu errektorearen eginkizunak

1. Kontseilu errektorearen eginkizunak dira:

a) Amiantoaren Biktimentzako Kalte



del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto.

- b) Conocer la evolución económica del organismo y proponer al Gobierno, a través del ministro o ministra con competencias en materia de seguridad social, las medidas oportunas para el cumplimiento de sus fines.
- c) Aprobar el anteproyecto de presupuestos y su liquidación anual.
- d) Aprobar la memoria anual de actividades del organismo.

2. El consejo rector se reunirá, previa convocatoria de su presidente, al menos dos veces al año, y a propuesta de la representación sindical o empresarial.

#### Artículo 7. Secretaría general

1. La secretaría general es el órgano permanente de dirección y gestión del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto. Su titular, con nivel orgánico de subdirector o subdirectora general, será nombrado/a por el ministro o la ministra con competencias en materia de seguridad social de entre el funcionariado del Estado con titulación superior.

2. El secretario o la secretaria general ostentará la representación del fondo y la jefatura de todos sus servicios y del personal.

#### Artículo 8. Funciones de la secretaría general

Son funciones de la secretaría

Ordainetarako Funtsaren jarduerarizpideak prestatzea.

- b) Erakundearen eboluzio ekonomikoa jakitea, eta Gobernuari proposatzea, gizarte-segurantzaren eskumenak bere gain harturik dauzkan ministroaren bitartez, bere helburuak betetzeko behar diren neurriak.
- c) Aurrekontuen aurreproiektua eta urteroko likidazioa onestea.
- d) Erakundearen jardueren urteroko memoria onestea.

2. Kontseilu errektorea bildu egingo da, aurretiaz kontseiluko lehendakariak deituta, urtean bi aldiz behintzat, eta sindikatuen edo enpresaburuen ordezkariek proposaturik.

#### 7. artikulua. Idazkaritza nagusia


1. Idazkaritza nagusia da Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren zuzendaritzeta kudeaketa-organo iraunkorra. Haren titularra, organikoki zuzendariorde nagusiaren maila izango duena, gizarte-segurantzaren eskumenak bere gain harturik dauzkan ministroak izendatuko ditu goi-mailako titulazioa duten Estatuko funtzionarioen artetik.

2. Idazkari nagusiak funtsaren ordezkaritza izango du, eta zerbitzu guztien eta langileen burutza.

#### 8. artikulua. Idazkaritza nagusiaren eginkizunak

Idazkaritza

nagusiaren



general:

- a) Ejecutar los acuerdos del consejo rector.
- b) Ejercer y desarrollar las funciones directivas, administrativas y de gestión y cualesquiera otras no reservadas al consejo rector.
- c) Elaborar y elevar al consejo rector, para su aprobación, el anteproyecto de presupuestos y su liquidación anual y la memoria anual de actividades.
- d) Autorizar los gastos y ordenar los pagos.
- e) Resolver, en primera instancia, los expedientes administrativos de solicitud de indemnización y cualquier otro tipo de peticiones que puedan afectar a los fines o intereses del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto.
- f) Ejercitar los derechos y acciones judiciales y extrajudiciales conducentes a una eficaz subrogación de los derechos que corresponden al solicitante de la indemnización contra las personas físicas o jurídicas responsables del perjuicio.
- g) Informar periódicamente de su gestión al consejo rector.

#### Artículo 9. Las unidades administrativas periféricas


##### 1. Las unidades administrativas periféricas del Fondo para la

eginkizunak dira:

- a) Kontseilu errektorearen erabakiak egikaritzea.
- b) Zuzendaritza-, administrazio- eta kudeaketa-eginkizunak betetzea eta garatzea, bai eta kontseilu errektoreari erreserbatu gabeko beste guztiak ere.
- c) Aurrekontuen aurreproiektua, urteroko likidazioa eta jardueren urteroko memoria prestatzea eta kontseilu errektoreari aurkeztea.
- d) Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea.
- e) Ebaztea, lehen instantzian, kalte-ordaina eskatzeko administrazio-espedienteak eta Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren helburuei edo interesei eragin diezaiekeen beste edozein eskaera mota.
- f) Kalte-ordaina eskatzen duenari dagozkion eskubideen subrogazioa eraginkorra izateko eskubideak eta ekintza judizialak eta ez-judizialak baliaraztea kaltearen erantzukizuna duten persona fisiko edo juridikoen kontra.
- g) Aldian-aldean bere kudeaketaren berri ematea kontseilu errektoreari.

##### 9. artikulua. Administrazio-unitate periferikoak

1. Amiantoaren Biktimentzako  
Kalte Ordainetarako Funtsaren



Indemnización de las Víctimas del Amianto, sin perjuicio de su dependencia funcional de la secretaría general, se integrarán en la estructura orgánica de las respectivas direcciones provinciales de la Seguridad Social en las condiciones que se establezcan.

2. Al frente de cada unidad administrativa periférica se nombrará un funcionario o funcionaria, con el nivel administrativo que se determine, con la función de coordinar las actividades del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto y ejecutar las directrices de sus órganos rectores.

3. A las unidades administrativas periféricas se adscribirá el personal necesario para el desarrollo de sus funciones; en particular, funcionarios y funcionarias licenciados y licenciadas en Derecho, habilitados y habilitadas para dar cumplimiento a los trámites de audiencia y ejercer con eficacia las acciones subrogatorias y de seguimiento.

4. En cada provincia se constituirá una comisión de seguimiento del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto.

La comisión, presidida por el director o dila directora provincial de la Seguridad Social, estará integrada por tres representantes de la Administración del Estado, tres de las organizaciones sindicales, tres de las organizaciones empresariales más representativas con arreglo a la ley, y uno de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.

Artículo 10. Funciones de las unidades administrativas periféricas

administrazio-unitate periferikoak, betiere idazkaritza nagusiarekiko duten mendekotasun funtzionalaren barruan, Gizarte Segurantzaren probintzia-zuzendaritzetako egitura organikoan sartuko dira ezartzen diren baldintzetan.


2. Administrazio-unitate periferiko bakoitzeko buru funtzionario bat izendatuko da, erabakitzet den administrazio-mailarekin, eta ardura izango du Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren jarduerak koordinatzea eta funtsaren organo errektoreen gidalerroak egikaritza.


3. Administrazio-unitate periferikoei atxikiko zaizkie unitate horiek dituzten eginkizunak burutzeko behar diren langileak; bereziki, Zuzenbidean lizentziatutako funtzionarioak, gaitasuna izango dutenak entzunaldiaren tramiteak betetzeko eta subrogazio eta jarraipeneko ekintzak eraginkortasunez baliarazteko.

4. Probintzia bakoitzean Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren jarraipen-batzorde bat eratuko da.

Batzordea, Gizarte Segurantzaren probintzia-zuzendariaiak buru egingo duena, kide hauek osatuko dute: Estatuko Administrazioaren hiru ordezkarik, erakunde sindikalenei hiruk, enpresaburuen erakunde legearen arabera ordezkagarrienen hiru ordezkarik, eta laneko istripu eta gaixotasun profesionales mutuen batek.

10. artikulua. Administrazio-unitate periferikoen eginkizunak







Son funciones de las unidades administrativas periféricas:

- a) Instruir los expedientes administrativos de solicitud de indemnización y elevar, a través de los respectivos directores y las respectivas directoras provinciales de la Seguridad Social, a la secretaría general la correspondiente propuesta de resolución.
- b) Informar periódicamente a la secretaría general de la situación y funcionamiento del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto en el ámbito de su competencia.
- c) Los letrados y las letradas adscritos y adscritas a las unidades administrativas periféricas del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto ejercerán la representación de este en cuantas actuaciones judiciales y extrajudiciales resulten necesarias para una eficaz personación en los trámites de audiencia a que sea llamado el Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto por imperativo legal o acuerdo judicial.
- d) Los letrados y las letradas representantes del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto ejercitarán, en el ámbito territorial correspondiente a la unidad administrativa periférica a que estuvieran adscritos y adscritas, los derechos y acciones en que haya quedado subrogado el Fondo

Administrazio-unitate  
periferikoen eginkizunak dira:

- a) Kalte-ordaina eskatzeko administrazio-espedienteak instruitzea, idazkaritza nagusiari aurkeztuz, Gizarte Segurantzaren tokian tokiko probintzia-zuzendarien bitartez, dagokion ebazpen-proposamena.
- b) Aldian-aldian idazkaritza nagusiari informazioa ematea Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren egoeraz eta funtzionamenduaz bere eskumenaren esparruan.
- c) Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren administrazio-unitate periferikoei atxikitako legelariekin funtsaren ordezkaritza baliaraziko dute behar hainbat ekintza judicial eta ez-judizialetan eraginkortasunez pertsonatzeko beharrezkoak izanez gero legearen aginduz edo erabaki judicialagatik Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsari dei egiten zaion entzunaldi-tramiteetan.
- d) Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsa ordezkatzen duten legelariekin baliarazi egingo dituzte, atxikiak dauden administrazio-unitate periferikoari dagokion lurrarde-esparruan, Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsa subrogaturik geratu den eskubideak eta ekintzak, eta behar diren jarduketak egingo dituzte ordaindutako zenbatekoak ahal den modurik eraginkorrenean itzul daitezten.





para la Indemnización de las Víctimas del Amianto, realizando las actuaciones conducentes al más eficaz reembolso de las cantidades satisfechas.

## CAPÍTULO II

Cotizaciones, aportaciones y titulares del derecho

### Artículo 11. Obligación de cotización y aportación

Están obligados y obligadas a cotizar al Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto:

- a) Todos y todas los empresarios y empresarias a que se refiere el número 2 del artículo 1 del Estatuto de los Trabajadores, tanto públicos como privados, por los trabajadores y las trabajadoras por cuenta ajena que tengan a su servicio, vinculados por relación laboral ordinaria.
- b) Las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.

### Artículo 12. Base de cotización e ingresos

1. La base de cotización será la misma que la establecida para el cálculo de la cotización correspondiente a las contingencias de accidentes de trabajo, enfermedad profesional y desempleo en el sistema de la Seguridad Social.

2. El ingreso de las aportaciones se efectuará conjuntamente con las cuotas que corresponda abonar al régimen de la Seguridad Social y en la misma forma prevista para aquellas.

## II. KAPITULUA

Kotizazioak, ekarpenak eta eskubidearen titularrak

### 11. artikulua. Kotizazioak eta ekarpenak egiteko betebeharra


Kotizatu beharra daukate Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsari:


- a) Langileen Estatutuaren 1. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren enpresaburu guztiak, nola publikoek hala pribatuek, beren zerbitzura dituzten besteren konturako langileengatik, ohiko lan-harremanez lotuengatik.
- b) Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen mutuek.

### 12. artikulua. Kotizazio-oinarria eta dirusarrerak

1. Kotizazio-oinarria izango da Gizarte Segurantzaren sisteman laneko istripu, gaixotasun profesional eta langabeziako kontingentziei dagokien kotizazioa kalkulatzeko ezarritako bera.

2. Ekarpenen sarrera egingo da Gizarte Segurantzaren erregimenari ordaindu behar zaizkion kuotekin batera eta kuota horietarako aurreikusitako modu berean.





3. Las aportaciones de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales serán establecidas reglamentariamente.

#### Artículo 13. Titulares del derecho

Podrán obtener la reparación íntegra de sus perjuicios:

- a) Las personas que hayan obtenido el reconocimiento de una enfermedad profesional ocasionada por el amianto.
- b) Las personas que hayan padecido un perjuicio resultante directamente de una exposición al amianto en el territorio del Reino de España.

### CAPÍTULO III Procedimiento

#### Artículo 14. Iniciación del procedimiento

1. El procedimiento de solicitud de indemnización al Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto se iniciará con la solicitud de indemnización acompañada de los documentos justificativos que se precisen, y en particular de un certificado médico que demuestre la enfermedad y de todos los documentos necesarios para probar la realidad de la exposición al amianto.

2. No obstante, cuando el origen profesional de la enfermedad haya sido reconocido, el o la solicitante adjuntará a la petición solamente la resolución de la Seguridad Social.

3. Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen mutuen ekarpenak erregelamenduz ezarriko dira.

#### 13. artikulua. Eskubidearen titularrak

Beren kalteen erreparazio osoa lortu ahal izango dute:

- a) Amiantoak sorrazitako gaixotasun profesional bat aitortzea lortu duten pertsonek.
- b) Espainiako Erresumaren lurradean amiantoaren eraginpean egoteagatik zuzenean sortutako kalte bat nozitu duten pertsonek.


### III. KAPITULUA Procedura


#### 14. artikulua. Prozeduraren hasiera

##### 1. Amiantoaren

Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsari kalte-ordaina eskatzeko prozedurari hasiera emango zaio kalte-ordaina eskatzeko eskabidearekin, bai eta, horrez gain, beharrezkoak izan daitezkeen dokumentu justifikagarri guztiekin ere, eta, bereziki, gaixotasuna frogatzen duen ziurtagiri mediko batekin, eta amiantoaren eraginpean egon izana egia dela frogatzeko behar diren dokumentu guztiekin.

2. Hala ere, aitortu denean gaixotasunak lanbidea duela jatorri, eskatzaileak, eskabidearekin batera, Gizarte Segurantzaren ebazpena baino ez du erantsiko.





3. El o la solicitante informará al fondo de todas las acciones judiciales y extrajudiciales de indemnización que estén en curso en el momento de la petición.

#### Artículo 15. Ordenación

1. Iniciado el expediente, el procedimiento se impulsará de oficio en todos sus trámites.

2. En el caso de que faltén documentos, el fondo invitará, en un plazo de quince días, al solicitante a completar su petición.

#### Artículo 16. Instrucción

La instrucción del procedimiento se regirá por lo dispuesto en la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

#### Artículo 17. Terminación

En el plazo de seis meses, a contar desde la presentación de una petición de indemnización, el Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto presentará al o a la solicitante una oferta de indemnización. Esta indicará la evaluación establecida para el daño y perjuicio, así como el montante de las indemnizaciones que le corresponden.

La aceptación de la oferta supondrá la renuncia de las acciones jurisdiccionales de indemnización en curso y hará inadmisible cualquier otra acción jurisdiccional futura para reparación del mismo perjuicio. Lo mismo sucederá con las decisiones

3. Eskatzaileak jakitera emango dio funtsari eskabidea egiten denean kalte-ordaina emateari buruz bidean diren ekintza judizial eta ez-judizial guztien berri.

#### 15. artikulua. Ordenazioa

1. Behin espedienteari hasiera eman ondoren, prozedura ofizioz bultzatuko da bere tramite guztieta.

2. Dokumenturen bat falta izatera, funtsak gonbit egingo dio, hamabost eguneko epean, eskatzaileari bere eskabidea osatzera.


#### 16. artikulua. Instrukzioa

Prozeduraren instrukzioa Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak ezarritakoaren bidez arautuko da.

#### 17. artikulua. Bukaera

Sei hilabeteko epean, kalte-ordaina lortzeko eskabidea aurkezten denetik hasita kontatuta, Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsak kalte-ordainerako eskaintza bat aurkeztuko dio eskatzaileari. Eskaintza horrek zehaztuko du kalte eta galerarako ezarritako ebaluazioa, bai eta dagozkion kalte-ordinen zenbatekoa ere.

Eskaintza onesteak berekin ekarriko du uko egin beharra bidean diren kalte-ordainerako jurisdikzio-ekintzei, eta ezin onartuzko bihurtuko du kalte bera erreparatzeko geroko beste edozein jurisdikzio-ekintza. Gauza bera gertatuko da behin betiko bihurtzen diren jurisdikzio-erabakiek, amiantoaren



jurisdiccionales que se hagan definitivas asignando una indemnización íntegra para las consecuencias de la exposición al amianto.

#### Artículo 18. Recursos

1. Las resoluciones del secretario general del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto podrán ser objeto de recurso de alzada ante el ministro o la ministra que tenga asumidas las competencias en materia de seguridad social, que deberá interponerse en el plazo de un mes, contado desde el siguiente al de recibo de la notificación.

2. Las resoluciones dictadas en alzada por el ministro o la ministra competente en materia de seguridad social agotarán la vía administrativa y podrán ser objeto de recurso ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

### CAPÍTULO IV Acciones por subrogación

#### Artículo 19. Acciones por subrogación

Dictada la resolución de indemnización y aceptada por el o la solicitante, el Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto se subrogará en todos los derechos y acciones que correspondiesen a los titulares del derecho contra la persona responsable del perjuicio y contra las personas u organismos que debieran reparar el daño total o parcialmente.

eraginpean egon izanaren ondorioetarako kalte-ordinak osoa esleitzen dutenekin.

#### 18. artikulua. Errekurtsoak

##### 1. Amiantoaren

Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren idazkari nagusiaren ebazpenei jarri ahal izango zaie gora jotseko errekursoa gizarte-segurantzaren arlokó eskumenak bere gain harturik dauzkan ministroaren aurrean; errekurso hori jarri beharko da hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren bihamarunetik kontatzen hasita.

##### 2. Gizarte-segurantzaren

eskumenak bere gain harturik dauzkan ministroak gorako errekursoan emandako ebazpenek administrazio-bideak agortuko dituzte eta errekursoa jarri ahal izango zaie administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.


### IV. KAPITULUA

Subrogazioagatik egin beharreko ekin-tzak

#### 19. artikulua. Subrogazioagatik egin beharreko ekintzak

Kalte-ordinerako ebazpena emanda eta eskatzaileak onetsita, Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsak bere buruari subrogatuko dizkio eskubidearen titularrari egokitu ahal lekizkioken eskubide eta ekintza guztiak kaltearen erantzukizuna duen pertsonaren kontra eta kaltea osoki edo zatika erreparatu behar zuketen pertsona edo erakundeen kontra.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK



## DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. El secretario o la secretaria general del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto podrá delegar en los directores y las directoras provinciales de la Seguridad Social las facultades que le corresponden para dictar resolución de reconocimiento de indemnización.

Segunda. Decreto de estructura del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto

El Gobierno, en el plazo de seis meses a contar desde la entrada en vigor de la presente ley, aprobará el decreto de estructura y organización del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto.

Tercera. Inicio de actividades del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto

1. La puesta en marcha e inicio de actividades del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto se determinará por el Gobierno en el momento en el que se apruebe el decreto que regule su estructura y organización.
2. El Consejo de Ministros aprobará el presupuesto del organismo autónomo correspondiente al ejercicio económico en que inicie sus actividades, y dará cuenta de ello a la Comisión de Presupuestos del Congreso de los Diputados en el plazo de quince días. A tales efectos, se autoriza al ministerio competente en materia de presupuestos a realizar las

Lehenengoa. Gizarte Segurantzako probintzia-zuzendariengan eginkizunak delegatzea Amiantoaren


Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren idazkari nagusiak delegatu ahal izango ditu Gizarte Segurantzaren probintzia-zuzendariengan berari dagozkion ahalmenak kalte-ordaina aitortzeko ebaezpena emateko.

Bigarrena. Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren egiturari buruzko dekretua

Gobernuak, sei hilabeteko epean lege hau indarrean sartzen denetik aurrera kontatuta, onetsiko du Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren egiturari eta antolaketari buruzko dekretua.

Hirugarrena. Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsaren jardueren hasiera

1. Haren egitura eta antolaketa arautzeko dekretua onartzen denean zehaztuko du Gobernuak Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsa abian noiz jarriko den eta jarduerak noiz hasiko dituen.
2. Ministroen Kontseiluak onetsiko du erakunde autonomoaren aurrekontua jarduerak hasten dituen ekitaldi ekonomikorako, eta hamabost eguneko epean horren berri emango dio Diputatuen Kongresuko Aurrekontu Batzordeari. Horretarako, baimena ematen zaio aurrekon-tuetan eskumena duen ministerioari aurrekon-tuetan egin beharreko



modificaciones presupuestarias necesarias para la formación de dicho presupuesto, sin que puedan suponer un incremento del importe global consignado en las partidas de los presupuestos generales vigentes al inicio de las actividades del organismo autónomo.

## DISPOSICIONES FINALES

### Disposición final primera

Se faculta al ministro o la ministra que tenga asumidas las competencias en materia de seguridad social para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo de la presente ley, que entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

### Disposición final segunda

La puesta en marcha e inicio de actividades del Fondo para la Indemnización de las Víctimas del Amianto se hará con cargo a los Presupuestos Generales que se aprueben en el año siguiente a la aprobación de la Ley de creación de un Fondo de Compensación para las Víctimas de Amianto.

aldaketak egin ditzan aurrekontu horiek eratzeko, betiere erakunde autonomoaren jardueren hasieran indarrean zeuden aurrekontu orokoren partidetan kontsignatutako zenbateko globalean inolako gehikuntzarik eragin gabe.

### AZKEN XEDAPENAK

#### Azken xedapenetako lehena

Ahalmena ematen zaio Gizarte Segurantzaren arloko eskumenak bere gain harturik dauzkan ministroari eman ditzan behar diren xedapenak lege hau garatzeko, indarrean sartuko dena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hogei egunera.


#### Azken xedapenetako bigarrena

Amiantoaren Biktimentzako Konpentsazio Funts bat Sortzeko Legea onetsi eta hurrengo urtean onesten diren Aurrekontu Orokoren kargura abiatuko da Amiantoaren Biktimentzako Kalte Ordainetarako Funtsa eta haien kargura ezarriko da jardueren hasiera ere.

Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos

Grupo Parlamentario EH Bildu,





Grupo Parlamentario Elkarrekin Podemos

Grupos Parlamentario Socialistas Vascos

Grupos Parlamentario Popular Vasco

A.E.O.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 4an

